

ESKUIN MUTURRA ETA SARE SOZIALAK
GEZURREK HEDATZEN DUTE GAITZA



LARRUN #300

ESKUIN MUTURRAREN NEURRIRA EGINDAKO SAREAK, GORROTOA ELIKATZEKO BAZKA

EGILEA | **GORKA PEÑAGARIKANO GOIKOETXEA**

AZALA | **IÑAKI LANDA**

Sare sozialek permititzen dituzte horrelako edukiak, eta haiek ere izan beharko lukete ardurarik auzi honetan. Baina ez dirudi inork neurririk hartzeko asmoa duenik. Zigortu izan dituzte sare sozialak, baina sekula ez ildo horretan, ez baita interesatzen. Izan ere, emozioak gainjartzen diren gizartean, polarizazioak eta konfrontazioak ematen dituzte bisita gehien.

Desinformatzea, gainera, ez da legez kanpokoia. Ez dago hori esaten duen legerik. Bai,

ordea, delituren bat egitea eragingo lukeen borondatez eginez gero; esaterako, etorkinekiko gorrotoa hedatzea xede izango lukeen informazio bat zabaltzea, baldin eta gezurra dela aurrez jakinda. Zer gertatzen da? “Ez nekien gezurra zela” esanda, aurreko guztia baliogabe geratzen dela.

Merke irteten da gezurrak zabaltzea, eta merke gorrotoa hedatzea. Eskuin muturrarentzat joko-arau perfektua da, eta galtzaileak beti berak izango dira, kolektiborik zaurgarrienak.

LARRUN HILABETEKARI MONOGRAFIKOA · ARGIAren 2.890 zenbakiarekin banatua.

JABEA: KOMUNIKAZIO BIZIAGOA S.A.L. **HELBIDEA:** ZIRKUITU IBILBIDEA, 15. PABILOIA 20160 LASARTE-ORIA **TELEFONOA:** (00 34) 943 37 15 45

POSTA ELEKTRONIKOA: LARRUN@ARGIA.EUS **INPRIMATEGIA:** ANTZA KOMUNIKAZIO GRAFIKOA **DISEINUA:** MAITANE GARTZIANDIA

2024ko urriaren 27a

Beroa izan da uda, bereziki abuztua. Denborale handia uztailaren 29an heldu zen, eta, ordutik, jasanezina izan da sargoria. Izan ere, uztail amaierako egun horretantxe jazo zen Ingalaterra ipar-mendebaldeko Southport hiria astindu zuen krimena: hamazazpi urteko gazte batek sei, zazpi eta bederatzireko hiru neskatila hil zituen labankadaz, eta beste dozena erdi pertsona zauritu, jaialdi batean. Eltxoak udan landa-eremuan nola biderkatu ziren diskurtso arrazista eta xenofoboak, eta jendeak infernuraire ere emango lukeen gailuaren bidez hauspotu ziren gezurrak, propio faltsututako informazioak, irudi zaharrak, manipulatuak... Horixe da, funtsean, eguraldirik aproposalose-



**GERTAKARI ANEKDOTIKOENA
ERE, DUELA URTE BATZUK
'BIRALA' EGINDAKOA, ORAIN
INSTAGRAMEN EDO X-N
ZABALTZEN DUZU ETA BATEK
BAINO GEHIAGOK SINETSIKO
DU GAUR, ATZO EDO BERRIKI
GERTATUA DELA**

na eskuin muturrarentzat: ekaitz-erauntsia.

Lausoa da sare sozialen mundua, bizia eta masifikatua. Oldeka hel-

tzen dira informazioak, bonbardaketa eran, segunduro. Eta Anaia Zaharra gainean: algoritmoa. Berdin dio nor jarraitzen duzun eta nor ez. Arrazista kuadrilla batek magrebtar gazte bat nola iraindu eta kolpatzen duten bideoa ikusi baduzu, hamar segundoz bada ere, zureak egin du. Algoritmoak gogaituko zaitu.

Daturik gabe, sentsazio hutsez, zera baieztatu daiteke: diskurtso arrazista eta homofoboak zientoka aldi gehiago zabaldu dira sare sozialetan, uda honetan, bestela baino. Twitterren edo X-n, bederen. Ezin froga daiteke halakorik mundu lainotsu horretan, lausotasunak baitakar informazio oro egiaztatze-ko gabezia larria, eta horixe da, ziu-



GETTY IMAGES

rrenik, sare sozialek duten arazorik handiena: ziurtasunez ezin jakin daitekeela ikusitako bideoa, irudia edo dena delako informazioa, egia ala gezurra den, manipulatu a ote den, eta, aurreko horiek bezain inportantea, noizkoa den.

Gertakari anekdotikoena ere, duela urte batzuk *birala* egindakoa, orain Instagramen edo X-n zabal-tzen duzu eta batek baino gehiagok sinetsiko du gaur, atzo edo berriki gertatua dela. Esaterako, marea bi-ziak, olatu handiak eta haize bor-titza juntatzen diren egun askotan zabaldu ohi da Zarauzko portuan grabaturiko bideo bat, zeinetan hi-ruzpalau gazte ageri diren txoroa-rena egiten, itsasoarekin “jolasten”, euren bizitza arriskuan ipintzen. Bideoaren iruzkinak esan ohi du: “Gaur Zarautzen. Zoratuta gaude”. Bideo horrek, ordea, hamabost urte izango ditu honezkero. Baina jakizu,



ABUZTUAN, MILAKA PERTSONA ATERA ZIREN KALERA INGLATERRAN, ETORKINEN AURKAKO GORROTOA HEDATZERA: MESKITEI, ETXE ETA ELKARGUNEEI... EGIN ZIETEN ERASO

bideoa ikusia ez duenak, edo oroi-tzen ez denak, sinetsiko du gaur grabatua dela.

Egongo da memoria ona duenik, eta baten batek esango du ez dela aktuala. Horrela bai, bideoa gaur-koa dela sinetsi duenen batek eza-gutuko du *egia*, ez dela gaurkoa, en-gainagarria zela informazioa. Baina

ziur norbaitzuek segituko dutela sinesten halako gertatu dela gaur.

Aldatu gertakari anekdotiko hori beste edozerengatik. Ipini kolekti-boren baten aurkako gorrotoa heda dezaken bideo-gertakariaren bat. Magrebiar bat supermerkatu batean lapurreta egiten, esaterako. Zabaldu urtean behin. Zenbat lapu-rreta-kasu sortuko ditugu gertakari bakar batetik? Eta zenbat estereo-tipo eraiki eta beldurra sorrarazi, kasu bakar batetik?

Magrebtarra omen zen Ingala-terrako Southport-eko hiltzailea. Legez kanpoko egoeran emigratu zuen etorkina. Pertsona baten ar-gazkiak sareetan zirkulatu zuen gertakariaren lehen unetik, nahiz hurrengo egunean fiskaltzak esan pertsona hori ez zela hiltzailea eta ez zebiltzala bere bila. Hala ere, bere irudia han eta hemen hedatzen segitu zuten, baita beste makina bat



REUTERS

informazio ere. Zuzenbide ikuspegitik, legez kanpoko da hori, errugabe baten irudia horrela zikintzea eta jo puntuan ipintzea; eta etikoki, zer esanik ez.

Ingalaterran, gertakariaz geroztik, lokaztu zen dena. Hauspoa hartu zuten diskurtso xenofobo eta arrazistek. Sare sozialetako difusio kanalak erabilia, mobilizazioak antolatu zituen eskuin muturrak. “Magrebtar batek hiru haur autoktono hil ditu” ideari erantzuteko, “mendeku” gisa, kalera atera eta protesta egiteko deialdia zen. Eta egin zuten. Abuztuaren lehen astean, milaka pertsona atera ziren kalera, aspaldian ikusi gabeko diskurtso arrazistekin, etorkinen aurkako gorrotoa hauspotzera. Meskiten egin zieten eraso, hainbat etorkin bizi diren tutoretzapeko etxe eta eraikinei, baita zuriak ez diren bestelako norbanakoei ere, kale-eskale “ez-autoktonoei”...



EGIA EZAGUTZEKO INTERESA DUENAK, INTERESA DU. GEZURTATUKO LITUZKE EGUNERO MILAKA GEZUR. BAINA BALITEKE SAREETAKO GAINPRODUKZIOAREN ERUZ BEHAR BESTE EZ EGITEA

Erresuma Batuko Poliziak, guxtienez, 400 pertsona atxilo hartu zituen mobilizazio horietan, eta horri ere “mendeku” hartu zioten. Poliziaren aurkako jarrera hartu zuten manifestariek, nolabait ere esanez Poliziak “etorkinak defendatzen dituela”, gobernuak aginduta ari zela

Polizia horrelako kargak eta istiluak eragiten; non geratzen den “adierazpen askatasuna”; “gobernuaren errua” zela Southporten gertaturikoa, etorkinei herrialdean sartzen uzteagatik; “jakizu zenbaterainoko gizarte-prestazioak dituzten”; “soldatapeko lanean baino gehiago irabazten dute estatu-laguntzekin”...

Ezkerreko jendea ez zen mutu geratu, eta mobilizazio horien kontra manifestazioak antolatu zituzten. Mundu mailako elkartasun keinuak ere ikusi ziren, auzia tokian tokira eramanda; Donostiako Aste Nagusiaren atarian, esaterako.

Ez zen magrebtarra Southporteko hiltzailea. Ezta etorkina ere. Ruandako genozidiotik ihes egindako familia bateko senidea da 17 urteko gaztea, hiru neskato hil zituen, Axel Muganwa. Cardiffen jaioa, Southport ondoko Banks herrian bizi dena koskortu zenez geroztik.



AFP



TV3

Hilketaren hurrengo egunean bertan zabaldu zituen xehetasun horiek fiskaltzak, berez, kontuan hartuta ezin zuela halakorik egin, adinez txikikoa zelako Muganwa. Salbuespena egingo zuela esan zuen fiskaltzak, kaleko egoera gehiegi berotzen ari zelako. Detaile franko eman zituen, diskurtso arrazistei hankak mozteko. Baina hein batean, ez zuen faxismoa gelditzeko balio izan, eskuin muturrak gezurrak zabaltzen segitu baitzuen ondorengo egun eta asteetan. Milioika bisita izan zituzten, besteak beste, hiltzailea Siriako migratzaile musulmana zela zioten dozenaka albiste eta sareetako informazio faltsuk. Zenbat erabiltzailek sinetsiko zuten basakeria hori egin zuena Siriako migratzaile musulmana zela? Eta zenbatek gezurtatuko zuten informazioa gero, fiskaltzaren esanak kontuan hartuta? Bidean galduko ziren asko.

Antzerako zerbait gertatu zen abuztuaren amaieran Espainian, Tolledon. 20 urteko gazte batek 11 urteko umea hil zuen labankadaz saskatuta, egun argiz. Orduko hartan

ere zer nolako mezuak hedatu ziren, beldurgarria zen. Hipotesi faltsuak, jendeak sortuak, gorrotoa elikatze-ko bazka.

Gezurak, sareetan, ez du bide motza

Gezurak bide motza omen du, hori dio esanak. Baina zaharkituta geratu da, bai behintzat sare sozialen esferan. Egia ezagutzeko eta informatuta egoteko interesa duenak, interesa du. Eta gezurtatuko litzuzke sareetan, egunero-egunero, milaka gezur. Baina baliteke sareetako gainproduktzioaren eraginez gezurrak behar beste ez gezurtatzea. Kontua da, azkenean, gezurrak bide luzeagoa duela sare sozialetan, egiak baino dezente gehiago.

Galdetu bestela Javier Negre “kazetariari”. Espainiako eskuin tradizionalaren ildoko *El Mundo* kazetako erredaktorea izan zen, tartean Euskal Herrian, Gasteizen. ETArri eta Eusko Legebiltzarrari loturiko albisteak idazten zituen, bere erara, hein handi batean Espainiako PPri komeni zitzaionaren arabera. Ezagu-

nago egin zen gerora, 2016an, kazetaritzaren deontologia nahi bezala apurtu, bidegabekeria handiz jokatu eta kondenatua izan zenean: indarkeria matxistaren biktima izandako emakume bat espiatu zuen, bere etxeko atea jo eta barrura sartzeraino, lagun baten laguna zelakoan, kode etiko guztiak gaindituta. Marra guztiak txiki geratu zitzaizkion. “Kazetari” horren nahia zen, eta publikoki harro-harro esan izan du, demostratzea emakume horrek salatutako tratu txarrak “faltsuak” zirela.

Beraz, emakumeek tratu txarrak “asmatu” eta “esajeratu” egiten dituztela pentsatzen duten malapartatuen bozeramaile bihurtu zen Negre, aipatu bezala, bere arabera, “ikerketa-kazetaritza” eta “kazetaritza zintzoa” eginda. Ordutik, “kazetaritza independentea, libre eta askea” aldarrikatu du, eta horretarako, nahi duena nahi bezala egiten jarraitzeko, sortu zuen Estado de Alarma (EDA) Youtubeko telebista kanala eta “komunikabidea”. Ia 400.000 harpidedun ditu. Hortik eta

Javier Negre, Estado de Alarma
komunikabideko nagusia



JAVIER NEGRE ETA 'EDA' HEDABIDEA DOZENA BAT ALDIZ KONDENATU DITUZTE GEZURRAK ETA GORROTOA ELIKATU DEZAKETEN MEZUAK PUBLIKATZEAGATIK

gana heltzen jarraitu zuen titular horrek. Albistea zuzendu zuten, eta bestea berratu, baina titularrari ateratako pantaila-argazkiak zirkulatzen jarraitu zuen; horretarako daude *troll*-ak, kontu faltsuak, informazio jakin batzuk hedatzeko.

Geure buruari galdegiteko puntuak hiru dira: zenbat jende sinetsiko ote zuen albistea? Eta sinetsi zuten horietatik guztietatik, zenbat jabetuko ziren egiaz? Beraz, zenbat geratu dira bidean, gezurra sinetsita?

Hartu beste adibide hau, “hedabide” berberarena: “Ceuta hiriko Juan Morejón ikastetxea sugarretan kiskaltzen ari da oraintxe bertan, Espainiara ilegalki iritsitako marokoarrek eraso egin ondoren”. Ordu gutxiren buruan, ikastetxe-ko zuzendaritzak ohar bidez argitu zuen ez zela inolako suterik egon. Eta udaltzaingoak eta suhiltzailak ez zuten horren ezaguerarik, ez baitzen gertatu ere egin. Ez zen “ilegalki iritsitako marokoarrekin” istilurik egon ere.

Bi albiste faltsu horientatik galdegin diote Negreri TV3 katearen *La xarxa ultra* (“Eskuin muturreko sare sozialak”) dokumentalean. Galderak egin dizkion David Bou kazetari kataluniarra saiatzen da ataka estuan jartzen Negre, baina berak bi kasuak justifikatzen dituela esan daiteke, ageri-agerian geratzen den arren. Ez du barkamenik eskatzen, eta ez



@JAVIER.NEGRE

duela gutxi sortu duen beste “irraiti” batetik zabaldu izan dituzte bai berak eta bai bere langileek zientoka edo milaka gezur. Zurrumurru ugari daude ultraeskuineko alderdi edo fundazioen baten finantzazioa jasotzen duela.

Gezurak bide luzea du sareetan, eta egiak ez hainbeste, Negrek ongi asko dakien gisan. Gutxienez, azken bospasei urtetan, dozena bat aldiz kondenatuak izan dira bai Negre eta bai EDA, besteak beste gezurrak, datu okerrak, irainak, gorrotoa elikatu dezaketzen mezuak, informazio sentiberak eta beste publikatzeagatik. Askotan feminismoari loturikoak, eta gehientsuenetan immigrazioaren alorrekoak. Hainbatetan itxi dizkiete hedatzeko kateak, tenporalki, eta auzitegiek beti behartu izan diete argitaratutako informazio hori okerra zela esan eta zuzenketa argitaratzera.

Horixe da, berez, kazetaritza jardun okerrak ekartzen duen zigorra; isun txikia eta zuzenketa argitaratzea. Zigor horiek motz geratzen dira, baina.

Gezurak hedatzea merke irte-ten da, eta duen eragina, edo izan dezakeena, oso larria izan daiteke. Gorrotoari dagokionean, nabarmen. Esaterako, erreparatu EDK argitaratutako albiste eta titular honi: “Madrilgo metroan gizon bat labankadaz sastatu dute *Ala handia da oihukatuta*”. Gezurra zen dena. Udaltzaingoak segituan gezurtatu zuen notizia; izan ere, antza, gertatu zena zen jatorri arabiarreko gizon batek aterki batekin kolpatu zuela beste gizon bat. Ala jainkoaren aldeko oihurik ez, inola ere. Ordu-rako, baina, notiziak milioi inguru ikustaldi izan zituen sareetan, eta, algoritmoak algoritmo, hainbesteko *trending*-a zenez, jende gehiagoren-

ardurarik hartzen ere. Nolabait ere, “horrelakoak gertatzen dira” esatera mugatzen du bere diskurtsoa, antza, horrelakoak “nahi gabe” gertatzen dira-eta hain bizia eta azkarra den kazetaritza munduan.

Erreportaje honen ardatzetako bat ordubete pasatxoko ikus-entzuzko hori izango da.

Hedabideei kasurik ez

Garai postmodernootan eskuin muturrak “alternatiba” eskaintzen du European. Feminismoaren bandera inoiz baino instituzionalizatuago dago, baita ekologismoarena ere, praktikan eztabaidatu bagenezake ere zenbateraino balio duen... Bada, instituzionalizatuta dauden iritzi

aurrerakoi horien aurka egitea da eskuin muturrak eskaintzen duena, “askatzailea” dena.

Baina eskuin muturraren “eskaintza” hori ez da soilik termino politikoetakoa, baizik eta eskaintzeko moduak ere badu berebiziko garrantzia. Ultraeskuina ez da soilik hedabide konbentzionaletan agertzen, edo ez ditu horiek soilik erabiltzen. Bere estrategia izan da ekosistema propio bat eratzea. Hedabideak sortu ditu, Javier Negre eta EDAREN kasua da horixe, baina harago joan eta sareetako “eduki sortzaile” deritzen asko ere bere mantraren pean daude.

Estrategia horren eta eskuin muturrak gazteengan duen eragina-

1/2

Munduko 46 herrialdeetako 18 eta 24 urte arteko gazteen erdiak bakar-bakarrik sare sozialak erabiltzen ditu ustez informatuta egoteko

ren zergatia ulertzeko, datu hauek gurutzatu behar dira: munduko 46 herrialdeetako 18 eta 24 urte arteko herritarrei galdetuta, ia erdiak bakar-bakarrik sare sozialak erabiltzen ditu ustez informatuta egoteko, *Digital News Report*-en txostenaren arabera. Hurrenez hurren, sare hauek erabiltzen dituzte gehien: Instagram, Tik Tok, Youtube eta Twitter. Hedabideak noizbait kontsultatzen dituzten gazteak beste erdiak dira, baina multzo horretan, hamarretik bederatzik erabiltzen ditu sare sozialak informatuta egoteko, hedabideak kontsultatzearekin batera.

“Ezkerraren diktadura”

Hedabideez gairako fenomenoak ez dira gaur goizeko kontuak. Adibide ona da Frantziako *Patriosphere*. Mende honen lehen hamarkadan garatu zen, Interneten hedapenarekin batera, web alternatibo, blog, Facebookeko orri edo talde eta Youtubeko kanaletan. “Hedabideek baztertzen zituzten ahotsak” omen ziren. Gaur egungo sare sozialetako “eduki sortzaile” askok gauza bera diote.

Baina *Patriosphere* ez zen inolako talde homogeneo eta bakarra izan, Miguel Urbán politologo eta politikariak *Trumpismos* (Verso Libros, 2024) liburuan aztertzen duenez: “Eskuin muturraren askotarikotasuna erakusten zuen *Patriosphere*-k.



La xarxa ultra (TV3) dokumentalaren posterra

Tartean zeuden katoliko identitario eta tradizionalistak, neonaziak, eskuin alternatiboa... *Ezkerraren diktadura*-ren aurkako denak. Gaur egun ere horixe ikusten ari gara, eta termino bera da, *aurrerakoien diktadura*”.

Historikoki ezkerraren leloak izan direnak erabiltzen ditu, orain, eskuin muturrak. *Askatasuna* adibidez, edo *debekatuta debekatzea*, 1968ko maiatzekoa. Abilezia handia dute terminoak berenganatzeko, Urbánek liburuan dioenez. Izan ere, eskuin muturraren garaipen handia horixe izan da, kontrakulturaren estetika, inkonformismoarena, *alt-right* izatea, bere-berea.

Aurrerapen kulturalak gizartean txertatzen doazen heinean, diskurtso feminista eta ekologistak esaterako, inkonformista izatea horren aurka egitea bihurtu da. Horregatik, Iago Moreno soziologoak *La xarxa ultra* dokumentalean azaltzen duen moduan, alternatiba gisa aurkezten du bere burua ultraeskuinak. Baina “kontrakultura” izatea, ohiko politika instituzionaletik kanpo aritzea ere bada gaur egun. Eta beraz, profil horretan bete-betea egiten dute bat *influencer*-ek. Horregatik, haien mezuek ez dute lotura zuzenik alderdiekin. Miquel Ramos kazetari eta eskuin muturraren mugimenduan aditu denaren esanetan, “sinpleki hainbat gai lantzen dituzte, eskuin muturrari interesatzen zaizkion ikuspuntuetatik”.

Esan badugu ere eskuin muturreko *influencer*-en mezuek ez dutela loturarik politika instituzionalarekin, zerikusi zuzena dute hauteskunde zikloekin. Bai, behintzat, audientzia datuetan. Aipaturiko dokumentaleko kazetariak kalkulatu egin dituzte Espainiako eskuin muturreko eduki-sortzailen Youtubeko kanalen bisitak, Espainian, iaz, bi hauteskunde esanguratsu egin ziren denbora-tarteak



“KONTRAKULTURAREN ESTETIKA, INKORFORMISTA IZATEA, ‘ALT-RIGHT’ DA GAUR EGUN; HORI DA ESKUIN MUTURRAREN GARAIPENA”

MIGUEL URBÁN, ‘TRUMPISMOS’

hartuta: maiatzeko udal eta foru hauteskundeak, eta uztaileko hauteskunde legegileak.

Hain zuzen, urtarrilean, lehen hauteskundeetarako lau hilabete-ren faltan, 1,5 milioi bisita inguru izan zituzten kanal horiek. Maiaztean, udal eta foru hauteskunde unean, sei milioi ikustaldi. Uztail horretako hauteskundeak urgentziaz deituak izan ziren; bada, hauteskunde legegile horietan, hoge milioi bisita izan zituzten. Alegia, urte bereko urtarriletik uztaile, bi hauteskunde garrantzitsu tartean egonda, hamahiru aldiz biderkatu ziren zifrak.

Youtuber sektarioen “borroka kulturalak”

Isaac Parejo espainiarrak, *InfoVlogger* gisa ezagunagoa denak, zazpi urte daramatza “borroka kultural” deritzen horietan, Youtubeko kanalaren bitartez –400.000 harpidedun ditu-. “Borroka” egiten du “mundua gainbeheran daramatenen” aurka; feminismoaz eta migrazioaz ari da nagusiki.

Bere etxera joan dira TV3ko dokumentalgileak. Donald Trumpen banderola handia du horman zintzilikatuta, *Make America Great Again* (Egin Amerika handi berriz). Esana du Espainiako Vox alderdi ultraeskuindarrari eman izan diola botoa, baina ez du gehiegitan azpimarratzen. Ez ditu, oro har, alderdi politikoak aipatzen, ez badira kritikatzeko –ezkerrekoak, alegia–.

“Progresismoaren kontrakoa naiz”, dio LGTB mugimenduaren ortzadarra daraman kamiseta jantzita duela. Ortzadarra du, baina bere kamisetako siglak beste batzuk dira: *Liberty-Guns-Trump-Beer* (Askatasuna-Armak-Trump-Garagardoa). Sarritan esan du, harro-harro, homosexuala eta Vox-ekoa dela. Apa-



Miquel Ramos aditua,
La xarxa ultra dokumentalean

TV3



**“EZTABAIDA POLITIKORAKO
ESPazio BERRIAK IREKI DIRA,
ETA UNE HORIEK ASKOTAN
GERTATZEN DIRA JENDEA
ZAUERGARRI DAGOENEAN”**

IAGO MORENO, SOZIOLOGOA

rretan dago azkenaldian, magrebtarren aurkako diskurtsoak hedatzen ari diren honetan; izan ere, berak bere burua “arriskuan” ikusten duela dio: “Islamaren aurka nago, islamak nire izate homosexuala zigortzen duelako. Zintzilikatu egingo nindukete haien herrialdeetan. Horregatik ez dut musulmanik nahi Espainian”. Sinpletasun horretara mugatzen du bere diskurtsoa, eta horrek arrakasta dakarkio.

Hein batean, gauza bera gertatzen da hainbat *youtuber* edo *influencer*-ek haien bizitza pribatuarekin zera egin izan dutenean: paradisu fiskal diren estatuetara joan bizitzera, zerga gutxiago ordaintzeko. “Bestela, Ogasunak diru asko kentzen dit, hainbeste [zifra]”. Jakina, sofan etzanda dagoenak, ziurrenik, horrenbesteko zifrarik ez du sekula ikusi, eta beraz, astakeria irudituko zaio ditxosozko Ogasuna egiten ari zaiona; horregatik, gutxienez ulergarri egin ahal zaio *youtuber* horrek harturiko erabakia, eta, akaso, diskurtsoa bete-betejan jan duenak, kaleko eztabaida informal batean defendatuko luke erabakia. “Nik ere gauza bera egingo nuke hainbeste diru irabaziko banu, zuk ez?”. Une horretan

@IAGOMORENO_ES



Iago Moreno soziologoa.

bertan, *influencer*-ak irabazi du borroka kultural hori.

Egoeraren larritasuna horregatik da, hain zuzen, hain kezka-

ria, diskurtso eta erabaki horiek normalizatu egiten direlako. Eta ezin eztabaidatu daitezke mezuak oro har, sare sozialetan, ezin iritzi-trukaketa errealik egin. Hutsaren hurrengoa balio du, besteari erantzunez, X-n edo Twitterren zerga-sistema zertan datzan esplikatzek, hor, milaka eta milaka ikustaldi dituen bideoari iruzkinak utzita. Eta hori, bideoaren jabeak ez badu iruzkin-mezua borratzen, Youtuben esaterako, eskumen osoa baitu horretarako.

Populismoaren logika diskurtsiboaz Ernesto Laclau filosofo argentinarrak argi zioen 2005ean, hutsak diren esanahiek elkartzen dituztela herritar zatikatuak. Indeterminazio semantikoa bihur daiteke komunitate politiko horren elkargune, amankomuneko “etsaia” ezarrita. Formak soilik aldatu dira, asko, Laclauk zioenetik gaur egunera. Funtsak hor dirau.

Existitzen ez diren dikotomiak dira jada, gaurko egunez, herritarren *online* eta *offline* bizitzak. Batera doaz, ez da du-



Trumpismos (Verso Libros, 2024), Miguel Urbán politologo eta politikariak idatzia.

“HARRO DIOT ISLAMOFBOA NAIZELA. ARAZORIK?”



Isaac Parejo,
Infovlogger youtuber-a



%11

Espainiako Estatuan dauden eta laguntza sozialak jasotzen dituzten etorkinen portzentajea. Aldiz, jendeak uste du etorkinen erdiak jasotzen dituela prestazioak.

%16

Espainiako Estatuan dauden etorkin langabetuen portzentajea. Jendearen pertzepzioa da etorkinen ia erdiak ez duela lanik egiten.

ITURRIA: ISEAK INKESTA-ETXEA, 2024

darik. Eta horrek ekarri du politika egiteko modu klasikoa zaharkituta geratu izana. Hor dator aldaketa, gizartearen pentsaera eta jarreratan. Autobusaren zain gaudenean, etxean deskantsuan... Pentsatu zenbat *post* pasatu ahal ditugun geure paretik. Halako momentuak biziki interesgarriak direla dio Iago Moreno soziologo eta sareko propagandan adituak: “Eztabaida politikorako espazio berriak ireki dira, eta une horiek askotan gertatzen dira jendea zaugarri egoeran dagoenean; kontrolagaitza bihurtzen da”. Gezurra den informazio bat ikusi, eta pentsatuko duzu gezurra dela –edo agian hori ere ez–, baina pasatu duzu paretik, gehiegi hausnartu gabe.

Titularrarekin geratzeko joera ere bada horren adierazle. Esaterako, irailaren 3ko notizia hau: “Venezuelako presidente Madurok aurreratu egin ditu Gabonak, eta urriaren 1ean ospatuko dituzte”. Txiste ugari entzun eta irakurri ahal izan dira

han eta hemen, asko, Maduro zoratuta dagoela eta halako gehiago. Nahi izan ez duenak ez du arakatu, eta ez du jakin zer suposatzen duen Venezuelan ekintza horrek, auzo txiroei haien beharrak asetzeko laguntzak ematen zaizkiela.

Feminismoren aurkako olatua

Dalas José Santomé Lemus edo *Dallas Review* gisa ezagunagoa den 30 urteko *influencer*-ak zera esan zuen bideo batean: “Mende honetako erlijioa, feminismoa da. Alegia, existitzen ez diren gauza batzuetan sinestea. Erlijioarentzat [kristautasunaz ari da] Satanasen figura dagoen bezalaxe, gauza oker guztien erantzule, feminismoarentzat patriarkatua da hori. Eta patriarkaturik ez da existitzen hemen. Ekialde Hurbilean, Afrikan... Bereziki Ekialde Hurbilean, han bai, zorakeria da”. Adi datuari: tipo horrek 11 milioi jarraitzaile ditu Youtuben.

Beste adibide bat: Adrià Núñez, *Libertad y lo que surja* izeneko you-

tuber-a. Bere ezizena euskaraz, literalki, *Askatasuna eta hortik sortzen dena*. 316.000 jarraitzaile ditu YouTube. Oilarkeria handiz zera esaten du TV3ko dokumentalean: “Asko informatzen diet nire jarraitzaileei feminismoaren inguruan, gaur egun existitzen den diskriminaziorik handiena delako. Historikoki pertsona asko diskriminatu izan dira, besteak beste Ku Klux Klan egon da, naziak ere bai judutarren aurka... Horiek guztiak difamazio kanpainekin hasi izan dira. *Judutarrek mundua kontrolatzen dute*-eta gisako mezuekin. Ikusten ari garena da patroï berberak jarraitzen dituela feminismoak, *gizonek mundua kontrolatzen dute* horretara iritsi nahian”.

Hori esanda, dokumentalean, kazetariak galdetzen dio ea diskriminatua sentitzen den, gaur egun, Espainiako Estatuan. “Dagoen diskriminaziorik handiena da feminismoa, zalantzarik gabe”, erantzuten du. “500 lege daude emakumeei pribilegioa ematen dietenak”. Interneteko erabiltzaile anti-feminista askok erreferentziatzat duten blog bati buruz ari da, zeinak puntuz puntu, batere azalpenik eman gabe, aipatzen dituen hainbat “diskriminazio”.

Erreportajea idazterako unean, 530 “diskriminazio” inguru aipatzen dira blog horretan. Ideia bat egiteko, zenbait adibide. Esaten da zenbait enpresei pizgarriak ematen zaizkiela emakumeak kontratatzeagatik; emakumeek zenbait lanpostu publikorako sarbide errazagoak dituztela -Ertzaintzan, kasurako-; hiri batzuetako gaueko autobus-lineetan geldialdia “nahieran” aukeratu dezaketela eta gizonak ez -indarkeria matxistari aurre egiteko eta etxera seguru iristeko neurria da-; indarkeria matxistaren biktimek “erraztasunak” dituztela lanean, lan-murrizketak eskatzeko unean; osasun profesionalei formakuntza jasotzera behartzen



Adrià Núñez,
'La libertad y lo que surja' youtuber-a

zaiela indarkeria matxistaren biktimek artatzeko, eta ez, ordea, gizonen aurkako biolentzia dagoen kasuetarako...

Diskurtso sinplista eta azalekoak dira, batere sakondu gabeak eta tranpantiak, baina besterik gabe esanda, ulertzeko errazak direnak. Besteak beste, gizonak emakumea kolpatzea gogorrago zigortzen dela azpimarratu ohi dute, emakumeak gizona kolpatuta baino. Aipatu dugun azken *youtuber* horrek horixe bera esaten duenean, eztabaida bizia izaten du galderak egiten dizkion David Bou kazetariarekin. Sekuentziak honela segitzen du: gizona gizonak zenbat emakumezko hil dituzten Espainian esaten dio Bouk, zifra ematen dio, eta *youtuber*-ak beste datu bat ematen dio, defentsarako erabili ohi duten “argumentua” indarkeria matxista ukatzen dutenek; homizidio guztien artean, hildako gehienak gizonenak direla. Gilda ipintzen dio

argumentuari *youtuber*-ak: “Baina jakina, bikote harremanetan emakume biktima gehiago daude, eta egongo dira beti, gizonak indar gehiago duelako”.

Dokumentaleko pasarte horretan, interesgarriak dira kazetariak mahai gainean jartzen dituen datuak, eskuin muturreko *youtuber* gehienek iturri bertsuak eta erabat inpartzialak erabiltzen dituztela, ematen duten informazioari sostengua emateko. Lehen aipatu dugun “emakumeen aldeko diskriminazioen bloga” da horietako bat, baina baita haien buruei “ikerketazentro” deitzen dieten beste enpresa sektarioak ere. AEBetakoak dira zenbaitzuk, zeinak lobby ultrakatolikoaren parte diren. “Feministek ez dizkizute erakutsiko nik esaten dizkizudan informazio ziur horiek, baizik eta soilik haien sektako informazio manipulatuak erabiltzen dituen Espainiako Berdintasun Ministerioarenak”, dio *youtuber*-ak.

Elena Francis itzuli da?

Fikziozko izena da Elena Francis, baina bai izan zen Espainia frankistako irratsaio bat: *Elena Francisen Kontsultategia*. Emakume espainiarrek eskutitza bidaltzen zuten bertara, programako gidariari aholkua eskatzeko: nola egin errusiar entsaladilla on bat, senarra liluratzeko? Eta fruta kontserba? Nola kozinatu ganoraz odolki eta txorizoa lekaleekin jateko?

Hiru galdera erreal horiek eta gehiago jasota daude *Las cartas de Elena Francis. Una educación sentimental bajo el franquismo* liburuan (Elena Francisen kartak. Frankismo garaian, heziketa sentimental). Alegia, senarraren begietan, “etxeko andre on bat” nola izan galdetzen ari ziren emakume horiek.

Gaur egungo ikuspegitik begiratu, kafkiano samarra dirudite halako gertakariak. Baina ez. Horren guztia- ren bertsio eguneratua da *tradwife* fenomenoaren *-traditional-wife* ingelesez; “emazte tradizionala”, eta mugimendu horrek bere sostengua du gizartean. Ez dirudi bereziki zabaldua

eta onartua dagoenik, baina ez da aferra erraza.



Tradwife fenomenoaren sustatzailerik ezagunenetakoa bat Estee Williams estatubatuarra da, emakume errepublikanoa, kristaua eta zuria –ez dirudi hori kasualitatea denik-. Etxekoandre zoriontsua da. Bideoetan esaten du ez dela bere asmoa berearen gisako “emakume prototipo bakarra” sustatzea, baizik eta norbera libre dela berea erabakitzeke... baina, bere us-tez, gizartean “ezingo genuke guztiok rol bera eduki”.

Sukaldean egin eta errezetak sare

sozialetako jarraitzaileei kontatzea gustatzen zaio, ez da dudarik. Gustuz egiten du, eta horregatik, konplexuagoa bihurtzen du eztabaida. Izan ere, gustuz eginda ere, bere senarra etengabe gustarazten ari da, plater goxoak prestatuta, eta mezu horrek, zoriontasunez atonduta, badu laban bat ezkutatuta. Normalizatzen ari baita senarra gustura sentiaraztera behartuta egote hori.

Antzerako polemika batean sartuta egon zen RoRo gisa ezaguna egin den emakume gazte espainiarra, TikTok *birala* egindakoa. Bere mutil lagunari eta mutilaren lagunei halako eta halako plater gustatzen zaizkiela-eta, orduak eta orduak eman ditu sukaldean. “Maitasuna janariarekin erakustea gustatzen zait”, esan izan du, antza poz-pezik kamera aurrean. Jakina, pozik egiten du, edo horixe dio. Horrek sortu zuen polemika.

Zeresana eman zuen hainbat egunez RoRok Espainian. Gaiari buruz, Esther López Barceló idazle, historialari eta politikari ohia-ri zera irakurri genion *El Salto*-n idatzitako artikulua batean: “Gertatzen dena da, bere hautu librean oinarritzen denez, inpresioa eman dezakeela besteontzat ere aukera zilegi eta atsegina dela, izan ere, *influencer* izateak baliozkotasun soziala ematen dio, eta publikoak erabaki dezake, normal-normal, RoRoren bidea jarraitzea. Azkenerako, mutil lagunaz kezkatzen den neska bat dela dirudi, ezta?”.

Ikusitakoa ikasi egiten omen dela-eta... Zer nolako erantzukizuna eskatu behar zaie *influencer*-ei? ●



Eta non dago ezkerrea?

Ezkerrarentzat, bataila galdua dela uste du Iago Moreno adituak, *La xarxa ultra* dokumentalean esaten duenez. Sare sozialen jokoan, arauak ez dira berak eskuinarentzat eta ezkerrarentzat. “Emozioak” bilatu izan ohi ditu eskuinak, eta Instagram edo Twitter, esaterako, neurri-neurrira egindakoak dira eskuin muturrarentzat: “Ekintza konkretu batzuetan oinarrituriko emozioak, agresibitate, antagonismoa... Aldiz, ezkerreko moldeek, elkartasun sareak eratzeko ideiek, enpatiaren gisako emozioek, leku oso gutxi eratzen dute sare sozialetan”. Ezkerrak onartu egin behar du hori horrela dela, Morenoren ustez.

Janari azkarraren parekoa bihurtzen ari da politika egiteko moldea bera: zakarra, azkarra eta prozesatua. Politikaren *McDonalizioa*-z hitz egiten du Guillem Suau-Gomilla irakasle eta ikertzaile kataluniarrak, eta termino hori Zygmunt Bauman soziologoak emandako gizarte likidoaren ideiarekin nahasten du. Artikulu interesgarria idatzi zuen Suau-Gomillak Bartzelonako Pompeu Fabra Unibertsitateko Komunikazio Departamentuak 2023ko martxoan kaleratu zuen *CR01* ikerketa-aldizkarian.

Honela dio Suau-Gomillak: “Gizartearen agendako gaiak geroz eta azkarrago ari dira aldatzen, eta horrek oztopatu eta kasu askotan galarazi egiten du hausnarketa sozial sakon bat egitea auzi horren inguruan. Ideia populistei atea zabaltzen die horrek, mezuak sinpletu, arazoei soluzio sinpleak topatu, istorioaren *onak* eta *txarrak* bereizi, eta, oro har, emaitza zera da, kolektibo baztertuak are gehiago zapaltzen direla. Horri guztiari ahotsa emateko bozgorailu perfektuak dira sare sozialak, neurrira egindakoak direlako. Beraz, gizarteak geroz eta dependentzia handiagoa baldin



**“GIZARTEKO GAIK GEROZ
ETA AZKARRAGO ARI DIRA
ALDATZEN, ETA HORREK KASU
ASKOTAN GALARAZI EGITEN
DU HAUSNARKETA SAKONA
EGITEA; IDEIA SINPLE ETA
POPULISTEI ATEA ZABALTZEN
DIE HORREK”**

GUILLEM SUAU-GOMILLA

badu sare sozialekiko, bistakoa da horrek nori egiten dion mesede”.

Mezuak sinpletuta oso zaila da egia osoa esatea.

Gezurretik beldurrera

George Orwellék zioen historia 1936an eten zela, eta orduz geroztik propaganda baino ez dela egon. Beste askok esan dute egia izan zela Lehen Mundu Gerrako lehen biktima. Dreyfus auzia ere hortxe dago, 1894an gertatua, egia eta



**“EZKER POLITIKOAREN
MOLDEEK, ENPATIAREN
GISAKO EMOZIOEK,
ELKARTASUN IDEIEK, LEKU
OSO GUTXI DUTE SAREETAN;
EMOZIO ANTAGONISTAK,
AGRESIBITATEAN
OINARRITUTAKOAK...
GAILENTZEN DIRA”**

IAGO MORENO

post-egiaren erakusle argia; ondo ikusten da hori Roman Polanskiren *J'accuse* pelikulan.

Gezurra, definizioz, engainatzeko asmoz pentsatzen edo norberak sentitzen duenaren aurkakoa esatean datza. Baina motz geratu da *gezur* hitza bera. Behin esatetik asko hedatzera alde handia dagoelako, badirudi horregatik jazo dela termino berrien agerpena. Horregatik *bulo* gazteleraz, eta *fake news* ingelesez. Euskaraz, *amen-omenka* ari-tzea dela dio Elhuyarren hiztegiak.

Amenka eta omenka mugitu izan da beti gizakia, bereziki krisi-garaitan, beldurra dagoenean. Beldurra duen gizakia baita gobernatzeko errazena. Eta, beldurra eragiteko, gezurrak hedatzea da errazena, Miguel Urbánék *Trumpismos* liburuan xehatzen duenez: “Normalizatzen ari dira immigrazioaren aurkako mezuak, gorroto-hotsak, argumetu faltsuak edo sinplistik erabilia, daturik edo iturri fidagarririk eman gabe”.

Ez dago urrunera joan beharrik. Azken hilabeteotan gutxienez bi aldiz agertu dira mezu arrazistak Donostia inguruan, bata Aste Nagusi betean eta bestea Hernanin, errepidean. “Etorkinak kanpora”, lauburuz lagunduta. Eta ez du parekorik Zigor Olabarria kazetariak ARGIAren 2.854 alean idatzi zuen analisiak –*Vox-eko euskal anti-sistemak*–. Gasteizko ikasgela bateko kasua kontatzen zuen, zeinetako ikasleek eskuin muturreko alderdi horren sindikatuak deituriko manifestazioan parte hartuko zuten. “Ezin duzu imajinatu zein muturreko jarrera duten euskararen eta gizarte prestazioen aurka”, zioen ikasgela horretako irakasleak.

Gezurretik beldurrera, inkonformista eta *anti-sistema* izatea, gaur egun, eskuin muturrekoa izatea da. Sare sozialek mezu horiei ematen dieten hauspoa, hori bai dela beldurgarria. ●

Kirolari lotuta ere bai...

Jaiki eta hoge minutuan gimnasioan egon. Itzuli eta irakurri [liburu jakin batzuk], eta gogoe-tatu duzunaz idatzi. Ni ez naiz pentsatzen jartzen ea nola sentitzen naizen; denbora galdua da”.

Amadeo Llados kirolari fitness eta *coach*-a da, entrenatzaile pertsonal baten gisakoa, baina bere entrenamendu eta aholkuak kiroletik harago doaz. Esaterako: “Zortzi ordu lo egitea? Hori pobreena da. Zuek baino lan gehiago egiten dut, osasuntsuago nago eta aberatsago naiz”. Hiru milioi jarraitzaile ditu sare sozialetan, gehienak Instagramen. “Garapen pertsonalean erreferente” omen da, baina izatez guru bat da, bere sektako lider.

Jaiotzez madrildarra, Miamin bizi da etxe handi batean, eta “luxuzko” bizitza hori une oro erakusten du, kategoria altuko autoak bereziki, hori baita bere marketing estrategia. Hori erakutsi bitartean ematen ditu “aholkuak”, bera bezalakoxea izateko zer egin behar den adieraziz.

Mindset. “Bizitzarako mentalitatea”. Etengabe horretaz ari da Llados, Claudia Nicolasa psikologo iruindarrak bideo-erreportaje interesgarrian jaso moduan. Mentalitate jakin bat da, ustez bi helburu lortzeko: indartsu egotea –gimnasioko gorputz es-

tereotipatua– eta dirua edukitzea. Ordaindu egin behar zaio “aholku” eta “entrenamendu” horiek jasotzeko. Zifrak ez dira publikoak, baina sekta horretatik irteeta lortu dutenek gerora esan dutenez, oinarritzko tarifa ehun eurokoa da, eta gutxienez 10.000 eurorainokoa izatera ere hel daiteke. Jakina, oso piramidala da estruktura, eta geroz eta gehiago ordaindu, orduan eta gorago zaude; hala, bere alboan egoteko une gehiago dituzu, baita “arrakasta” izateko aholku zehatzagoak ere.

Berak ukitzen duen edozer “urre” bihurtzen da, eta berari soilik entzun behar zaio, “plebeioz” eta “galtzailez” jositako mundua baita honakoa. Horretan egiten du azpimarra.

Burpees edo “igelaren jauzia” delako ariketarekin tematuta dago –flexio bat lurrean, altxa, jauzi eta berriz flexioa, ahalik eta azkarren–. Egunean zenbat egiten dituzun adierazi egin behar da; beraz, lehia sustatuta, itsutu egiten da jendea. Eguzkia atera baino ordu batzuk lehenago jaiki, *burpees*-ak egitera.

Mindset hori lau haizeetara zabaldu behar dute bere afiliatuek, horixe baitute dirua irabazteko moduetako bat. Norbera hasi dadila estilo horretako bideoak egiten, sareetara igo-

tzen, mentalitate hori hedatzeko. Eta egin bideo onak, landu bisitak, arrakasta izateko.

“Ez dizula funtzionatzen? Gehiago landu”

Paulo Azpiazu bergararra, harri-jasotzailea, Lladosen sekta horretan egon zen. 10.000 euro ordaintzera iritsitakoa da.

Aipaturiko bideo-erreportajearen hitz egin du. Zera esaten zien Lladosek: “Emaitzak momentuan ikusten ez badituzu, diru-gosez itsututa zaudelako da. Ez da hori egin behar. Lan gehiago egin behar duzu”. Honela oroitzen du Azpiazuk: “Gaizki sentiarazten zaitu. Beraz, 05:00etan jaiki beharrean, 04:00ean esnatzen zara, *burpees* gehiago egiteko. Eta astean bideo bat egiten bazenuen Youtubeko zure kanalerako, orain bost egingo dituzu”.

Orain kontziente da Azpiazu “beldurgarria” zela lehen egiten zuena, mila *burpees* egunean, euripean, goizean goiz jaikita. Eta, Lladosek esaten zien, familiak edo lagunak kuestionatuko baliete jarraitzen ari ziren “bizi-mentalitatea”, pikutara bidaltzeko, “galtzaileen mentalitatea” delako. Jende batek lagun eta harreman oro baztertu ditu Lladosen esanak jarraitzeko. ●



Amadeo Llados, *coach*-a eta “mentorea”. Bere bideoetatik hartutako bi pantaila-argazki dira.



Artikulu hauek erosita ekarpen ekonomikoa egingo diozu Bilboko Mbolo Moye Doole elkarteari. Atera aldarria kalera euskaraz eta wolofez!

 ARGIA Azoka

azoka.argia.eus (+34) 943 37 15 45

Bidalketa gastuak 5 € eta 40 €-tik gorako erosketetan, bidalketa doan.
Hemendik aurrera erosketak BIZUM bidez ere ordaindu daitezke.